

# **SEME-ALABA EUSKALDUN ELEANIZTUNEN GURASOENTZAKO PROPOSAMENAK ETA AHOLKUAK**

## **GU BAI GURASO BERRITSUAK**

### **OPARITU ZENBAIT HIZKUNTZA BEREGANATZEKO AUKERA**

Egungo gizartea eleanitza izanik, gure seme-alabak ere eleaniztunak izango dira eta, hala, hizkuntza ezberdinak ikasiko dituzte hizkuntza horietan sozializatuz.

Edozein egoera eta harremanetan bi hizkuntza ofizialetan eroso eta seguru sentitzera iristea abantaila handia izango da beraientzat: abantaila sozial, laboral eta kulturalak eskainiko dizkie, besteak beste.

Sozializazio prozesuan, eskolan hastea une garrantzitsua izaten da, izan ere, harreman sareak zabaltzen baitira eta harremantzeko moduak aldatzen. Hizkuntzekiko harremana ere aldatzen da: hizkuntza berriak ezagutzen dituzte, kale-ohiturak barneratzen hasten dira eta abar. Hainbatentzat eskolaren bidez, hizkuntzekiko lehen harremanak ematen dira: batzuentzat euskararekiko, eta beste hainbatentzat, gaztelaniarekiko.

Sozializazio-bidean aurrera egiteko, hizkuntzak behar dituzte: jolasteko, lagunak egiteko, ikasteko, eguneroko beharrak asetzeko eta abar.

Seme-abalei euskarazko sozializazioan lagundu behar genieke, izan ere, euskaraz ikasiko duten arren, testuinguru gehienetan euskararen kale-presentzia eta erabilera ez baita handiegia izango. Lagun diezaiegun, beraz, prozesu horretan.

#### **Zer egin dezakegu?**

- Gertukoa zaintzetik abiatu
- Inguru hurbilean euskara zaindu
- Beste hizkuntzekiko jarrera egokia transmititu

## Gertuko hizkuntzatik abiatu

---

### Zaindu etxeko hizkuntza edo hizkuntzak. Merezi du.

Gure seme-alabek hizkuntza bat baino gehiago ondo ikastea nahi dugu, helburua, beraz, gehitzea da. Bide horretan abiapuntua etxeko hizkuntza edo lehenengo hizkuntza izango da. Izan ere, lehenengo hizkuntzan oinarri ona duenak erraztasun handiagoa izango du gero beste hizkuntza batzuk ondo ikasteko. Horrez gain, lehenengo hizkuntza hori zein den ez da garrantzitsua -edozein izan daiteke-: euskara, gaztelania, errumaniera, arabiera... baina kontuan izan behar duguna da lehenengo hizkuntza horretan baliabide asko edukitzea dela, hots, beste hizkuntzak ondo ikasi ahal izateko abiapuntua.

Hori horrela, hizkuntza bat baino gehiago dakizkienak erraztasun handiagoa izaten du hizkuntza gehiago ikasteko, besteak beste, dakizkien hizkuntzetako ereduak eta erreferentziak laguntzen diotelako. Horrenbestez, ikuspegi horretatik ondo uler daiteke lehenengo hizkuntzaren garrantzia: zenbat eta aberatsagoa orduan eta erreferentzia zein eredu gehiago beste hizkuntzei begira.

### Zenbait proposamen:

#### Izan guraso berritsuak.

- Sortu elkarrizketa eta egoera komunikatibo asko eta gonbidatu haurra hitz egitera eta elkarerraginean aritzera, behin eta berriz. Adibidez, oraindik hizketan ez dakiten haurren kasuan, beraiek ezingo digute erantzun, baina bai guk gure buruari: *Nekatuta zaude? Bai? Etorri ba nirekin. Eseri nire magalean. Ondo? Zer egin duzue gaur? Ez esan, nik asmatuko dut...* Haurrak gure jokabideak ikusten ari dira: hitzak, doinuak, erritmoak, tonuak eta beste hainbat elementu entzun eta barneratu ditzakete. Hizketan hasten diren neurrian elkarrizketa ereduak aldatuz joango dira, baina guraso berritsuak izaten jarrai dezakegu.

#### Abestu eta abestiekin jolastu.

- Oso aproposa da hurrei jai berritatik asko abestea: haur-abestiak, betiko abestiak, gure gustukoak... Abestiekin asko jolas dezakegu: abestiaren erritmoarekin (azkartu, moteldu...), tonuarekin (altu, baxu...), erregistro ezberdinetan (pozik, triste, barrez, negarrez...).

#### Ipuinak kontatu eta ipuinekin jolastu.

- Ipuinak irakur ditzakegu, ezagutzen ditugunak kontatu, berriak asmatu, eta ere ipuinekin jolas gaitzake. Adibidez: ipuinetan aldaketak sartuz (pertsonaia berriak, pertsonaien izaera aldatu, amaiera aldatu...), ipuin berri bat hartzen dugunean kontatu aurretik azala begiratu eta zeri buruzkoa izan daitekeen asmatu, edota marrazkiak ikusi eta orri bakoitzean zertaz arituko den irudikatu, ondoren ipuina irakurri... Dagoeneko ezagunak diren ipuinen kasuan, guk ipuina irakurri beharrean haiek guri kontatzeko eskatu, eta abar.

#### Bide honetan lagungarriak izan daitezkeen bestelakoak:

- Antzerkitxoak txotxongiloekin, hizkuntza erabiltzea eskatzen duten jolasetan aritu (Ikusi-makusi...), eta abar.

## Inguru hurbilean euskara zaindu

---

Gertuko harremanetan hainbat hizkuntza entzun eta bizi ditzakete gure seme-alabek. Euskararen erabilera soziala bereziki oso handia ez den kasuetan, inguru hurbil horretan euskara entzun eta erabiltzeko aukera eman behar genieke.

### Adibidez:

- Inguruko beste gurasoekin harremanak euskaraz izan daitezen saiatu -hainbatek jakingo baitute-.
- Denda edo komertzio batean sartzean, euskaraz eskatu eta, dendariak euskaraz baldin badaki, harremana euskaraz sortu. Are gehiago, batzuetan gure seme-alabek ere hitz egin dezaten egoera bideratu dezakegu: beraiek eskatu edo ordaintzeko ardura eskainiz, adibidez.
- Inguruan euskaraz izan ditzakegun gune edo egoerak baliatu: kultur etxeko langileekin euskaraz egin, liburutegian euskarazko liburuak ere hartu, euskaraz diren ekitaldietara joan seme-alabekin eta abar.
- Kaletik goazenean guraso berritsuak izan eta euskarazko kartel edo errotuluei erreferentzia egin.

## Beste hizkuntzekiko jarrera egokia transmititu

---

Gure seme-alabek hizkuntza bat baino gehiago ondo ikastea nahi dugunez, euskaraz gain, beste hizkuntzak ere zaindu beharko ditugu.

### Gaztelania:

- Eskolan landuko dute eta testuinguru gehienetan kaleko hizkuntza indartsuena da. Ondo ikasiko dute baina garrantzitsua da jarraipena egitea eta irakasleekin ikaste prozesuari buruz hitz egitea. Hizkuntza behar bezala garatzeko zailtasunik edukiz gero, beste edozein ikasgairen moduan lagundu: eskolako lanekin lagundu edota kanpoko laguntza bilatu.

### Ingelesa:

- **Hizkuntzarik internazionalena da eta haur gehienek hirugarren hizkuntza moduan ikasten dute.** Interesa erakutsi eta ikus dezatela ingelesa ere ondo ikastea nahi dugula. Bereziki hizkuntzarekin harremana zaindu: disfrutatu dezatela hizkuntza horretan ere eta ez dezatela soilik ikasi behar den arlo batekin lotu.

### Inguruan ditugun beste hizkuntzak:

- Gure ingurua eleanitza da eta hori bistaratzea eta horri balioa ematea positiboa izan daiteke seme-alaben sozializaziora begira. Hau da: mundua eleanitza da eta eleanitza izatea da ohikoena. Ikasten ditugun hizkuntzak gure egiten ditugu eta gero eta gehiago ikasi ditzakegu gainera. Nor bere hizkuntzak erabiltzeak eta zaintzeak ez gaitu hobekiaz edo eskasagoak egiten, baina euskara jakitea eta erabiltzea, adibidez, euskal herritar izateko modu berezi eta aberatsa da.